

# EDITORIAL

## PAKISTANGO ZORTZIMILETAKOAK

*PYYRENAIC*aren ale berezi hau monografikoa izango zen, Pakistango zortzi mila metrotako mendiak gaitzat harturik: Karakorumgo lauak eta Nanga Parbat, baina uste gabe dena korapilotu da. Euskal Herriko eta Aragonekoen espedizioekin hasi zena, haundiagotzen joan da entzute haundiko alpinisten partehartzeekin, hauetaz baliatu bait gara mendi desberdinei buruzko informazioa biribiltzeko: Herrligkofferena: bere Nanga Parbaterako eten gabeko erromes egitearekin..., Diemberger eta Julie Tullisena: K2rako arrakastadun espedizio bateko bizipen pertsonalen kontrapuntoarekin..., Casarottorena: ea 8000tako gailur baterako igoera berak bakarrik eginda eta bere emazteak, Goretta, kondatuta... eta Boningtonena: beti gauza interesgarriak egiten ari direlarik, oraingoan Indiako Himalayan bide zail bat zabaltzen..., kondaketak kataluniarrenarekin amaitzen dira, berriro ere Txomolungma gailurra gainditzen ahalegindu izan direlarik, oraingoan Tibet aldetik baina.

Kartajanariri ahalegin berezi bat eskatu diogu berriro ere, kondaketa guztiok batzeko. Horra hor emaitza: Pakistango zortzi milatako bost mendiei buruzko azterketa oso-oso eta egunero-egunero eginda, gailurrik nagusietara, eta bestelakoetara ere bai, heldu diren guztien datu osoekin eta helbideen grafikoekin.

Hasierara joanda, ale hau batez ere zera da: uda honetan Pakistanen eskaladak egiten ari diren gure alpinistarik onenarikoei omenaldi bat. Hauei eta K2ra igotzeko zin-zinez eratu, azkeneraino ahaleginak egin, sufritu, etsitu eta K2ko Hegoaldetik atzera jo behar izan dutenei ere bai. Eta Mendebaldeko pilarera igotzen ahalegindu den —eta gutxi gelditzen zitzaizolarik beherantza jo beharra izan duen— Gaztelako espedizioan parte hartu duenari ere bai. Eta Nanga Parbat oinetara helduz, goian beraiei itxaroten egongo zirela uste izan eta, lagun gutxik espero zutenean lortuko zutela, ahaleginak egin eta igo zirenei ere bai.

Jakina badakigula zein den gure herri txikiari dagokion lekua ranking mundialean, eta horregatik ez dugu ilusio larregirik egiten, baina oso harro gaude gure abangoardiako alpinistekin. Eta ospatu nahi dugu ahal denik eta ondoen. Jai haundi bat ari gara antolatzen gure espedizioak goratzeko, gure mendizaletasuna kutsatzeko, umeei gorantzako bideak erakusteko... bizitza kalitate osasuntsu-ago bat hedatzeko. Gonbidatuta zaudete, ba, E.H.M.E. delakoak, Martxoaren 3tik 4rako asteburuan, Bilboko Erakusketa Azokan, antolatuko duen Mendi Jaia.

## LOS OCHOMILES DEL PAKISTAN

Este número especial de PYRENAICA iba a ser monográfico sobre los cinco ochomiles del Pakistán: los cuatro del Karakorum y el Nanga Parbat pero, poco a poco, alegremente, se ha complicado. Lo que empezó con las expediciones de vascos y aragoneses se ha ido ampliando con colaboraciones de alpinistas famosos, con las que hemos ido redondeando la información sobre los diferentes macizos: Herrligkoffer y su incesante peregrinaje al Nanga Parbat... Diemberger y Julie Tullis con el contrapunto de sus vivencias personales en una expedición exitosa al K2... Casarotto, una ascensión en solitario a una cima de casi 8.000 contada por su compañera Goretta... y Bonington, siempre haciendo cosas interesantes, esta vez abriendo una vía difícil en el Himalaya de la India... La llegada de relatos se acaba con el de los catalanes que han vuelto a intentar el Chomolungma, ahora por el Tibet.

Hemos pedido otra vez un esfuerzo especial a Kartajanari para aglutinar todos estos relatos. Ahí está el resultado: un análisis exhaustivo y rigurosamente al día de los cinco ochomiles del Pakistán, con los datos completos de todos los que han llegado a las cumbres principales y accesorias y los gráficos de las vías de acceso.

Volvemos al principio. Este número es sobre todo un homenaje a aquellos de nuestros mejores alpinistas que han escalado este verano en Pakistán. A los que lo han preparado concienzudamente, luchando a tope, han sufrido y se han desesperado, y han acabado retirándose de la vertiente Sur del K2. Al que ha formado parte de una expedición castellana que ha intentado el pilar Oeste y que también ha tenido que renunciar cuando les faltaba poco. Y a los que han llegado a la base del Nanga Parbat, han pensado que les estaban esperando arriba y, cuando pocos confiaban en que lo lograrían, se han empeñado y han subido.

Desde luego que somos conscientes del lugar que corresponde a nuestro pequeño país en el ranking mundial, y tampoco nos hacemos demasiadas ilusiones, pero estamos muy orgullosos de nuestros alpinistas de vanguardia. Y queremos celebrarlo con ellos por todo lo alto. Estamos preparando una gran fiesta que sirva para recordar nuestras expediciones, para contagiar nuestra afición al monte, para enseñar a los críos el camino empinado... para propagar una calidad de vida más sana. Estáis invitados a la Mendi Jaia que organiza la E.H.M.E. el fin de semana del 3/4 de marzo en la Feria de Muestras de Bilbao.